

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA

Lan eta Enplegu Saila

2022 - 2024



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO



AURKIBIDEA

Aurkezpena	3
Sarrera	5
1. Gobernu-programa	8
2. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana	14
3. Lan eta Enplegu Sailaren plangintza estrategikoa	21
3.1. Diagnostikoari buruzko datu garrantzitsuak	21
3.1.1. Gobernu ona	21
3.1.2. Esku hartzeko ardatzak	26
3.2. Helburu estrategikoak	36
4. Plana kudeatzeko sistema	39
4.1. Berdintasunerako urteko plangintza	39
4.2. Berdintasunerako egiturak	40
4.3. Jarraipen-sistema	40
4.4. Komunikazio-sistema	42
4.5. Aurrekontuak egiteko sistema	42

AURKEZPENA

Espainiako Konstituzioak lan-mundurako sarbidean emakumearen diskriminazioa berariaz debekatu zuenetik gaur arte, araudiak eskalatuz joan dira printzipio hori lantoki bakoitzera iristeko, 2022tik aurrera administrazio publikoetan hasi ziren berdintasun-planak 50 langile baino gehiagoko enpresetara iristeko errealitatera.

Euskadin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin lortu zen behin betiko bultzada, lege horrek berdintasun-planak ezarri baitzituen administrazio publikoetan. Aurreikuspen hori hobetu eta zabaldu egin zen martxoaren 3ko 1/2022 Legean; aurrerantzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legea deituko da.

Lege-esparru berri horretatik abiatuta egin da Lan eta Enplegu Sailaren Berdintasunerako Plana (2022-2024). Lege-esparru hori zorrotzagoa da maila guztietan gizonak eta emakumeak beren bizitzak askatasunez garatu ahal izateko espazioak ireki daitezten sustatu behar duen gizartean, inolako mehatxu edo mugarik gabe.

Horrez gain, indarrean jarri da 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena, eta 2022tik aurrera izango ditu ondorio guztiak. Izan ere, berdintasun-planak 50 langiletik gorako enpresetara orokortzeaz gain, beste neurri batzuk ere sartzen ditu, hala nola ordainsarien erregistroa edo soldata-auditoretzak. Sail honen ardura da horiek aplikatzea.

Horrela, Plana XII. Legegintzaldia hasi zenetik Sailaren berezko jarduera-eremu guztietan berdintasunari emandako bultzada handitik abiatzen da, Zuzendaritza Kontseiluko zuzendaritza-egituratik hasi eta plangintza eta jarduera bakoitza definitzean lortu den zeharkakotasuneraino. Hala, erabateko berdintasunak eragina du 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian, dagokion Plan Estrategikoan, 2026rako Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategian, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legean eta Euskal Enplegu Sistemaren Legea egiteko irizpideetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Ikuskaritzak aipatutako lan-betebehar berriak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea, sektore maskulinizatueta emakumeak prestatzeko eta kontratatzeko programa berritzaileak ezartzea, emakumeen lidergoa eta ekintzailtza sustatzea, edo gizarte-eragileen aholkularitza beren enpresetan berdintasun-planak ezartzeko, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak arlo horretan lortutako akordioen ondorioz. Hori guztia soldata-arrakalari aurre egiteko helburuaren barruan sartzen da, eta hori sensibilizazio-kanpainak hedatzea, gaiari buruzko jardunaldiak antolatzea eta Soldata Arrakalari buruzko Nazioarteko I. Biltzarra antolatzea ere merezi izaten ari da.

Beraz, Berdintasunerako Plan honekin, Lan eta Enplegu Sailak, legezko betebehar bat betetzeaz gain, konpromiso bat ere betetzen du: gizarte erabat demokratikoa eraikitzea, guztiz berdina izateko.

Idoia Mendia Cueva
Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua



SARRERA

Lan eta Enplegu Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana esparru-dokumentu bat da, eta XII. legegintzaldian sail honek berdintasun-politikan bultzatuko dituen gidalerroak jasotzen ditu.

Dokumentu honekin, Lan eta Enplegu Sailak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen aginduari erantzuten dio, 15. artikulua honela aldatzen baitu:

- ⇒ 1. – *Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko du, euskal herri-aginteeek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dituenen. Plan hori egiteko orduan, Eusko Jaurlaritzak aukera eman behar die gainerako euskal botere publikoei, talde feministei eta emakume-taldeei, beste gizarte-eragile batzuei eta, oro har, herritarrei. Era berean, 3. artikuluko 1. paragrafoko azken tartekian aipatutako emakumeen interesak ordezkatzeko dituzten kolektiboen edo erakundeen presentzia erraztu behar dute.*
- ⇒ 2. – 1. paragrafoan aurreikusitako plan orokorraren jarraibideak eta gidalerroak garatzeari dagokionez, legegintzaldi bakoitzean **Eusko Jaurlaritzako sailek beren jarduketa-planak egingo dituzte, eta plan horiek ezartzeko behar diren giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta baliabide materialak izango dituzte. Sail bakoitzak, egoeraren arabera eta eraginkortasun-irizpideak kontuan hartuta, bere erakunde autonomoekin eta atxikitako edo lotutako erakunde publikoekin koordinatzeko modua zehaztuko du, plan horiek egiteari dagokionez.**

Plan orokor hori VII. Plana da, Gobernu Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22an onartua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15.1 artikulua betez.

AURREKARIAK

Lan eta Enplegu Saila Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren bidez sortu zen. Horregatik, sailak ez du 2022. urtea baino lehenagoko berdintasun-planik.

Hala ere, kontuan hartu behar da sailaren eskumen-esleipen berri horrek lehen Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailean eta Lan eta Justizia Sailean zeuden funtzioak eta jardun-arloak berrantolatzea dakarrela. Beraz, hemen aurkezten den Planak bi sailek 2021. urtera arte berdintasunaren arloan garatutako plangintzetan egindako lanaren laburpena egiten du, baita indarreko legegintzaldian garatu beharreko ekintza berrien laburpena ere.

DOKUMENTUAREN EGITURA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana EAEko botere publikoek legegintzaldi honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango duten jardunaren dokumentu orientatzailea da. Ildo horretan, Lan eta Enplegu Sailari dagokio esku hartzeko estrategiak definitzea, bere eskumen-eremuan berdintasun-politikak gauzatzeko.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan honek eduki hauek ditu:

- ⇒ Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldirako Gobernu Programan Lan eta Enplegu Sailaren eskumenekoak diren konpromisoak eta ekimenak zehazten dira, bai eta programa hori betetzen lagunduko duten konpromisoak eta ekimenak ere, sailaren eskumen zuzenekoak ez badira ere.
- ⇒ Bigarrenik, Emakundek egindako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren arabera Lan eta Enplegu Sailaren eskumenekoak diren programak eta helburuak aurkezten dira.
- ⇒ Hirugarrenik, Lan eta Enplegu Sailaren plangintza estrategikoa azaltzen da. Bertan, diagnostiko bat egiten da gobernu onaren programa bakoitzean sailak duen konpromiso-mailari buruz, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan esku hartzeko ardatz bakoitzari buruz ere, eta plan honen garapenarekin eragin nahi den eremu bakoitzerako alderdi garrantzitsuak nabarmentzen dira. Ondoren, sailak berdintasunaren arloan duen esku-hartzea biltzen duten helburu estrategikoak jasotzen dira.
- ⇒ Eta, laugarrenik eta azkenik, kudeaketa-eredua aurkeztu da, zeinaren bidez bermatuko baita Lan eta Enplegu Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana modu koordinatu eta gardenean ezartzea, eta, aldi berean, sailaren barruan zein gizartearekin eta herritarrekin egindako esku-hartzean izandako aurrerapenak eta lorpenak neurtu ahal izatea.

EGITEKO PROZESUA

Nabarmentzekoa da, plangintza hau egiteko, jarduketa-estrategiak diseinatzerakoan ezagutu direla genero-arrakala nagusiak eta berdintasun-politikak ezartzeko aurreko ibilbidea bera.

ESKUMEN-EGITURA

Jarraian, modu eskematikoan aurkezten dira Lan eta Enplegu Sailaren eskumen-esparruak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak non kokatuko diren zehaztuta.

SAILBURUA

- Kabinetearen Zuzendaritza
- Komunikazio Zuzendaritza
- Zerbitzu Zuzendaritza

LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO SAILBURUORDETZA

- Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza
- Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza

ENPLEGU ETA GIZARTERATZE SAILBURUORDETZA

- Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza



1 GOBERNU PROGRAMA

XII. legegintzaldirako Eusko Jaurlaritzaren programak 3 printzipio, 4 ardatz, 10 herri-helburu, 25 jarduerar- arlo, 150 konpromiso eta 699 ekimen ezartzen ditu. Helburu estrategikoen artean dago Euskadi Genero Berdintasunaren Indize handiena duten Europako 6 herrialdeen artean kokatzea. Genero Berdintasunaren Indizea, 2017an, 100etik 71,1 puntukoa da EAEn, Europako batez bestekoa baino handiagoa, eta berretsi egiten du pixkanaka hobetu egin dela 2010ean (68,8 puntu), 2012an (69,1 puntu) eta 2015ean (69,3 puntu) lortutako puntuazioa.

Jarraian, XII. legegintzaldirako Gobernu Programan Lan eta Enplegu Sailari dagozkion konpromisoak eta ekimenak zehazten dira.

LAN ETA ENPLEGU SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO	
1. konpromisoa	Ekonomia eta enplegua suspertzeko sail arteko esparru-programa, Euskadiren berreraikuntza sozial eta ekonomikora bideratua.
1. ekimena	Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Esparru Programa bat egitea, koordinatzea eta bultzatzea, sailen eta erakundeen artekoa, Euskadiren berreraikuntza sozial eta ekonomikora bideratua, hazkunde jasangarria bultzatuko duena eta bat etorriko dena Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin, bai eta Europako Programen «Sure» eta «Next Generation EU» lehentasunekin ere.
2. konpromisoa	Ekonomia eta enplegua suspertzeko sailen arteko esparru-programarekin bat datorren enplegu-plana onartzea.
1. ekimena	Enplegu-plan bat onartzea, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzeko berariazko likidezia-neurriak jasoko dituen. Enplegua babestera zuzenduta egongo da, enplegurako prestakuntzaren arloko programa zehatzen bidez, enplegu berdea sortzen lagunduko duen bidezko trantsizio ekologikoa lehenetsiz.
2. ekimena	Birkualifikaziorako plan pertsonalizatuak eta egokituak sustatzea, digitalizazioaren erronkara egokitu behar diren 45 urtetik gorako langileentzat bereziki.
3. ekimena	Tokiko garapen ekonomikoa eta autoenpleguaren eta ekintzaitzaren sustapena bultzatzea, tokiko eta eskualdeko enplegu-planak indartuz, batez ere lehentasunezko jarduerak eskualdeetan.
4. ekimena	Gazte Enplegurako Talka Plana onartzea eta abian jartzea, Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programaren barruan, 30.000 gazteri lehen lan- esperientzia errazteko konpromisoarekin. Plan horren jarduerak ardatzak honako hauek izango dira: gazteen enplegurako prestakuntza duala; hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzea; prestakuntza-bekak eta lanbide-esperientzia kontratatze konpromisoarekin; gazteen laneratzeko eta enplegurako programa espezifikokoak; gazteen ekintzaitza, autoenplegua eta startupa garatzea; tokiko eta eskualdeko enplegu-planak; enplegu



	publikoaren eskaintzak eta enpleguaren prekaritatea murrizteko programak, bereziki gazteen artean.
4. konpromisoa	Enpleguaren kalitatea hobetzea
1. ekimena	Elkarrizketa Sozialaren Mahaian, sindikatu- eta enpresa-eragileekin lankidetzan, plan bat abian jartzea, enpleguaren behin-behinekotasuna eta lanaldien partzialtasuna murrizteko.
3. ekimena	Generoaren araberako soldata-arrakala murriztera bideratutako ekimenak indartzea, hitzamen kolektiboetan berdintasun-planen ezarpena txertatuz.
4. ekimena	Bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzea sustatzea, helburu hori erraztera bideratutako neurri espezifiko bidez, hala nola telelana sustatzea edo lan-ordutegiak malgutzea, enpresa bakoitzaren premia eta aukeretara egokituta eta familien errealitate desberdinak kontuan hartuta.
5. konpromisoa	Mikroekintzailtza bultzatzea eta autonomoei eta mikroETEEi laguntzea.
1. ekimena	4.000 mikroenpresa berri eta autonomoentzako 5.500 enplegu berri sortzen laguntzea. Horretarako, ekintzailtzari buruzko prestakuntza-programa berriak egingo dira ikastetxeetan, beste gizarte-eragile batzuekin lankidetzan, bai eta laneratze zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsonen laguntzeko jarduerak ere, mikroenpresak sortzen laguntzeko edo autoenplegua sustatzeko.
2. ekimena	Ekintzailtzaren eta barne-ekintzailtzaren sustapenari lehentasuna ematea, batez ere honako hauei lotutako enplegu-sorgune berrietan: digitalizazioa, bidezko trantsizio ekologikoa "green economy", zahartze aktiboa "silver economy", eta zainketen ekonomia.
3. ekimena	Ekintzailtzaren eremuan erakundeen arteko lankidetzak indartzea, lankidetzak-akordioak formalizatuz foru-aldundiekin, udalekin, eskualdeko garapen-agentziekin eta arlo horretan diharduten beste eragile batzuekin.
4. ekimena	Zailtasun ekonomikoak dituzten enpresen likidezia sustatzea eta autonomoentzako, mikroETEEentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako programa berri bat abian jartzea, enplegu berriei eusteko eta berriak sortzeko finantze- eta hazkunde-proiektuetan laguntzeko.
6. konpromisoa	Gizarte-ekonomiaren zeregina indartzea.
1. ekimena	Euskadiko Kooperatiben Legea garatzea.
2. ekimena	Gizarte-ekonomiako enpresen garapena babestea, enpresen dimentsioa indartzeko, bazkide berriak sartzeko eta haien arteko lankidetzak eta asoziazionismoa sustatzeko jarduketak erraztuz.
3. ekimena	Gizarte-ekonomiako enpresetan enpresa-kudeaketa eta -plangintza, prestakuntza eta gobernu onaren eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren sustapena hobetzen laguntzea.
4. ekimena	Gizarte-ekonomiako enpresetan berrikuntza teknologikoko eta ez-teknologikoko proiektuak sustatzea, sektoreko elkarte eta taldeekin lankidetzan.
7. konpromisoa	Zailtasun handienak dituzten langabeen laneratzea sustatzea eta enplegurako sarbidea hobetzea.



1. ekimena	140 milioi euro tokiko eta eskualdeko enplegu-planetara bideratzea. Foru-aldundiekin eta toki-administrazioekin lankidetzan garatuko dira, eta lehentasuna emango zaie gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonari, dibertsitate funtzionala dutenei, gazteei, 45 urtetik gorakoei eta iraupen luzeko langabeei zuzendutako ekimenei, eta arreta berezia jarriko da lehentasunezko jarduera-eskualdeetan.
2. ekimena	45 urtetik gorako pertsonen langabeziaren kronikotasuna saihestea, prestakuntza integraleko eta laneratzeko laguntza pertsonaleko ekintzen bidez, genero-ikuspegia barne. Arreta berezia eskainiko zaie desgaitasuna duten pertsonari.
3. ekimena	Hirugarren sektoreko enpresa eta erakundeekin proiektu pilotuak eta lankidetzakoak gauzatzea, egoera ahulenean dauden langabeen gizarteratzea eta laneratzeko sustatzeko.
8. konpromisoa	Elkarrizketa sozialean sakontzea eta eredu inklusibo parte-hartzailea bultzatzea euskal enpresan.
1. ekimena	Hiru aldeko elkarrizketa soziala eta etengabeko negoziazioa bultzatzea eragile ekonomiko eta sozialen artean, Lan Harremanen Euskal Sistema indartuz eta Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko lantaldeak indartuz, Lanaren Nazioarteko Erakundearen orientabideekin bat etorrituz.
2. ekimena	Honako hauen aldeko neurriak hartzea: lan-egonkortasuna eta enpresen lehiakortasuna; soldata-arrakalaren murrizketa; bizitza pertsonalaren, lanaren eta familiaren kontziliazio erantzukidea; telelana; ordutegi-malgutasuna; lan-denborazkotasuna murriztea; nahi ez den partzialtasuna murriztea; langileen etengabeko prestakuntza sustatzea; laneko segurtasuna eta osasuna, bai lantokian, bai "in itinere".
3. ekimena	Lan-harremanen eredu berri bat bultzatzea, langileek enpresan parte hartuz, lotuz eta gardentasuna hobetuz. Eusko Legebiltzarrean 2018ko irailaren 27an aho batez onartutako legez besteko proposamenari erantzun eraginkorra ematea da konpromisoa, euskal enpresen eredu inklusibo eta parte-hartzailean aurrera egiteko.
4. ekimena	Oñatiko Adierazpenaren garapena eta aplikazio praktikoa sustatzea: Lan Harremanen Eredu Berriturako Dekalogoak, 2019ko apirilean onartua, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) mendeurrena dela-eta.
9. konpromisoa	Lan-iruzurraren aurkako borroka eta Laneko Ikuskaritza indartzea
1. ekimena	Ikuskapen-plan berezi bat abian jartzea, ezarritako lanaldiak behar bezala betetzen direla bermatzeko eta iruzurra jazartzeko, behin-behinekotasunari eta partzialtasunari dagokienez. Helburua da aldi baterako lan-kontratuak erregularizatzea eta mugagabe bihurtzea, batez beste 7.000 pertsonarentzat urtean. Horretarako, ikuskaritzako baliabide materialak eta giza baliabideak indartuko dira.
2. ekimena	Lan-baldintzen aplikazio egokia indartzea eta aurreko legegintzaldian abian jarritako lan-iruzurraren aurkako postontzi anonimoaren erabilera sustatzea.
3. ekimena	Ikuskapen-kanpaina espezifiko bat garatzea, euskal enpresetan gizonen eta emakumeen arteko lan-diskriminazioa ezabatzeko.
11. konpromisoa	Bazterkeriaren aurkako diru-sarrerak bermatzeko sistema garatzea eta hobetzea.
1. ekimena	Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eredu indartzea, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren errealitate berria kontuan hartuta.

2. ekimena	Unibertsalizazioan sakontzea, gaur egun behar adina estalita ez dauden biztanleria-segmentu jakin batzuetara iritsiz, eta arreta berezia jarriz seme-alabak ardurapean dituzten familia behartsuetan.
3. ekimena	Kudeaketa hobetzea, prestazio eta laguntza ekonomikoak izapidetzeko eta zorrotz eta kontrolatuta.
4. ekimena	Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten eta enplegarriak diren pertsonen jarduera ekonomikoa eta gizarteratzea eta laneratzea sustatzea
12. konpromisoa	2022-2025eko Inklusio V. Euskal Plana onartzea
1. ekimena	2022-2025eko Inklusio V. Euskal Plana onartzea, erronka berriei erantzuteko. Plan horrek krisi ekonomikoko garaien inpaktuari aurre egitea ahalbidetuko duten neurri antiziklikoak jasoko ditu, bereziki inklusioaren eremuan genero-ikuspegia hartzeari erreparatuta.

Bestalde, taula honetan berdintasuna sustatzeko XII. legegintzaldirako Gobernu Programan jasotako beste konpromiso eta ekimen batzuk zehazten dira. Dokumentu horrek Lan eta Enplegu Sailaren ardura ez dela zehazten badu ere, zuzeneko eskumena du dokumentu hori betetzeko:

GOBERNU-PROGRAMAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNA SUSTATZEKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK	
94. konpromisoa	Soldata-arrakalaren aurkako talka-planaren aplikazioa sustatzea.
1. ekimena	50 langiletik gorako enpresetan berdintasun-planak bermatzea eta 50 langiletik beherako enpresetan berdintasun-planen negoziazioa sustatzea, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian lortutako akordioaren arabera.
2. ekimena	Euskadiko laneko ikuskaritzan berdintasun-unitateak indartzea.
3. ekimena	Ordutegiak arrazionalizatzeko itun sozial eta politikoa bultzatzea, gizarte-eragileekin lankidetzan.
4. ekimena	Norberaren bizitza, lana eta familia bateragarri egiteko aukera emango duen enpresa-kultura berri bat abian jartzen laguntzea.
6. ekimena	Emakumeak etorkizunean eskari handiagoa duten lanbideetan sar daitezen erraztea.



GOBERNU-PROGRAMAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

7. ekimena	Zainketak berdintasun-politiken erdigunean jartzea, gero eta erantzunkideagoa den gizarte-antolaketa batean aurrera egiteko eta kontziliaziotik erantzunkidetasunerako trantsizioa gauzatzeko.
95. konpromisoa	Balioak aldatzen eta emakumeak eta neskak ahalduntzen laguntzea.
5. ekimena	Emakumeen laneratzea sustatzea, autonomia ekonomikoa bermatzeko, batez ere tradizioz maskulinizatuta egon diren lanetan.

Beraz, Lan eta Enplegu Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan honek bat etorri behar du Gobernu Programarekin, eta sailaren konpromisoak eta ekimenak lortzen lagundu behar du, bai eta haren berdintasun-neurri espezifikoak lortzen ere.


2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA

[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak](#) modu koordinatuan eta orokorrean jasotzen ditu euskal herri-aginteez berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak. Plana Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egin du, erakunde publiko eta gizarte-eragile guztiekin batera, eta EAEko emakumeen eta feministen elkarteen eta berdintasun-teknikarien funtsezko lankidetzarekin.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren helburua botere publikoak orientatzea da, bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta femeninotasunaren mendekotasuna sostengatzen eta justifikatzen duten balioak aldatzen lagun dezaten, balio horiek gizonak mugatzen baitituzte, botere-egoeran egon arren, patriarkatuak ere baldintzatzen baititu beren bizitzak, unibertsala baita.

Balio-aldaketa hori ezinbestekoa da giza garapen jasangarrirako, eta berekin dakar balio berriak eraikitzea eta finkatzea, androzentrismoak, sexismoak eta matxismoak zeharkatu gabe; printzipio filosofiko, etiko eta politikoak eraikitzea eta finkatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideen errespetua eta herritarren sustapena garatu eta txertatu ahal izateko.

VII. Planean ezarritako printzipioek adierazten dute zein diren VII. Planaren helburu eta jarduera guztiak inspiratzen eta orientatzen dituzten ikuspegi estrategikoak, eta bermeek, berriz, haien eraginkortasuna eta eragina ziurtatzea bilatzen dute.



Horretarako, alde batetik, **Gobernu Onaren** 5 programa ezartzen ditu, Legeak adierazten dituen aginduak jasotzen eta zabaltzen dituztenak eta Administrazio Publiko osorako orokorrak direnak. Bestalde, berdintasunaren arloan **esku hartzeko ardatzak** definitzen ditu, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera egiteko:



GOBERNU ONA

GOBERNU ONA

Berdintasuna txertatzea euskal agintari publikoen antolaketan eta funtzionamenduan eta konpromiso politikoa esplizitu egitea.

EMAKUMEAH AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzea babestea maila pertsonalean zein kolektiboan, sozialean eta politikoan.

ESKU HARTZEKO ARDATZAK

EKONOMIAK ETA ANTOLAMENDUA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Politika ekonomikoak eta sozialak konektatzea, ekonomia sendoagoak eta gizarte jasangarri eta berdina sortzen laguntzeko.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Indarkeria prebenitzea, bizirik jarraitzen duten biktimak artatzea eta haiek izandako mina konpontzea.

Esku hartzeko ardatzetan proposatutako ekimenen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak aipatzen ditu Eusko Jaurlaritzako sailak, beren eskumen-eremua kontuan hartuta, gara ditzaketenak. Jarraian, VII. Planaren arabera Lan eta Enplegu Sailaren eskumenekoak diren programak eta helburuak aurkezten dira.

Gobernu Onerako programak eta neurriak ¹		
I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA.	BG.1. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea. BG.2.	BG2.1 Berdintasunerako berariazko aurrekontuak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. BG2.2 Berdintasunera bideratutako aurrekontua handitu duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
	BG.3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.	BG3.2 Berdintasunerako barmeko planak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. BG3.4 Berdintasunerako plangintza-prozesuak hobetzea. BG3.5 Erakunde publikoek egindako berdintasun-planen ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak hobetzea. BG3.6 Berdintasunaren arloko kudeaketa publikoan kontuak ematea sustatzea, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
	Berdintasunerako organo eta unitate administratiiboak sortzea eta indartzea.	BG4.1 Berdintasunean trebatutako teknikariak dituen unitate espezializatua duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jaurlaritzari atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. BG4.2 Berdintasunean trebatutako teknikariak dituen unitate espezializatua duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jaurlaritzari atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. BG4.3 Berdintasunean trebatutako teknikariz osatutako berdintasun-organismo espezializatua duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jaurlaritzari atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. BG4.4 Berdintasuneko teknikarien egoera eta maila profesionala hobetzea.

¹ Kolore honetan nabarmentzen dira Emakundek legegintzaldirako ezarritako lehentasunak eta gobernu onerako berdintasun-teknikak.



		BG4.5 Posizio organiko egokia eta beharrezko aurrekontuko zuzkidura duten berdintasunerako unitateen kopurua handitzea.
	BG.4. Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere.	BG5.1 Beren prestakuntza-planetan berdintasunerako prestakuntza txertatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. BG5.2 Jarduera politiko eta teknikora egokitutako berdintasunerako prestakuntza-ibilbideak diseinatzen dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. BG5.3 Berdintasunera berariaz bideratzen ez diren baina genero-ikuspegia txertatzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa handitzea.
II. PROGRAMA: BERDINTASUNE RAKO TREBAKUNTZA.	BG.6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	BG6.1 Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. BG6.2 Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. BG6.3 Emakumearen egoerari buruz eta/edo berdintasunaren arloan ikuspegi intersektionala duten berariazko azterlanen kopurua handitzea.
	BG.7 Enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzea.	BG7.1 EAEko berdintasuneko teknikariak hautatzeko prozesuak, berdintasun arloko berariazko prestakuntza eskatzen dutenak: ehunekoa handitzea. BG7.2 Emakumeen ordezkaritza txikia denean berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat duten enplegu publikoak lortzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea. BG7.3 Beren gai-zerrendan berdintasunari buruzko edukiak dituzten enplegu publikoak lortzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea.
	BG.8 Komunikazioan berdintasuna txertatzea.	BG8.1 Hizkera ez-sexista erabiltzen duten EAEko aldizkari ofizialetan argitaratutako dokumentuen ehunekoa handitzea. BG8.2 Hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen erabilera ez-sexista egiten duten euskal herri-administrazioen webguneetako edukien kopurua handitzea. BG8.3 Euskal erakunde publikoek erabiltzen eta berdintasunaren arloko lorpenak agerian jartzen dituzten komunikazio-euskarrien (memoriak, webguneak...) erabilera handitzea. BG8.4 Erakunde publikoek onartutako berdintasunaren arloko oinarritzko dokumentuak guztientzako eskuragarri jartzea.
III. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETA N.	BG.9. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	BG9.1 Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egiten dituzten foru- eta toki-administrazioen kopurua handitzea. BG9.2 Generoaren araberako eraginari buruzko alde aurretiko ebaluazioa duten arauen ehunekoa handitzea. BG9.3 Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea.
	BG. 10 Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.	BG10.1 Aurrekontuak berdintasunaren eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri-administrazioen kopurua handitzea. BG10.2 Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri-administrazioen kopurua handitzea.
	BG. 11 Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan.	BG11.1 Beren diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea. BG11.2 Berdintasunerako unitate edo eragile batek osatu eta ezarri dituen sektorekako edo zeharkako planen kopurua handitzea.
	BG.12. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	BG12.1 Kontratu eta/edo diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten eta betetzen diren ala ez kontrolatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. BG12.2 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten kontratuen ehunekoa handitzea. BG12.3 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten diru-laguntzen, hitzarmenen eta beken ehunekoa handitzea.
	BG.13 Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.	BG13.3 Berdintasunerako sailarteko koordinazio-egitura duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta horretan parte hartzen duten arloen kopurua handitzea. BG13.4 Nazioarteko lankidetzako guneak ugaritzea.
IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA.	BG. 14 Emakumeei eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzea pertsona anitzeko zuzendaritza-organoetan.	BG14.1 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten kide anitzeko zuzendaritza-organoen ehunekoa handitzea. BG14.2 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoa handitzea. BG14.3 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten hautaketa-epaimahaien ehunekoa handitzea.
V. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA.	BG. 15 Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia txertatzea.	BG15.1 Berdintasunerako herritarren partaidetzako batzorde edo organo bat duten herri-erakundeak gehitzea. BG15.2 Herritarrek parte hartzeko batzordeak eta organoak, beren osieran eta beren funtzio eta helburuen artean berdintasuna txertatzen dutenak, gehitzea. BG15.3 Emakumeek politika publikoetan parte hartzeko batzordeen, organoen, plataformen eta beste modu berrien eragina handitzea.



1. ARDATZA: Emakumeak ahalduzko programak eta helburuak ²		
1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA.	1.1 Giza garapen iraunkorrean emakumeek eta feminismoak duten zereginaren aintzatespena bultzatzea.	1.1.1 Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenari emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenen ikusgarritasuna eta aitorten soziala areagotzea. 1.1.2 Bizitzako eremu feminizatuenean gizarte-balorazioa handitzea. 1.1.3 Gizarte-komunikabideetan emakumeen eta feminismoaren lorpenak eta ekarpenak bizitzaren eremu guztietan transmititzen laguntzen duten programen eta edukien kopurua areagotzea. 1.1.4 Emakumeen eta feminismoaren ekarpen soziala eta historikoa beren hezkuntza-proiektuen edukietan txertatzen duten ikastetxeen kopurua handitzea.
	2.1. Gizarte- eta herritar-mugimenduetatik berdintasuna sustatzea, baita horietan emakumeen parte-hartzea ere.	2.1.1 Berdintasunaren alde lan egiten duten emakume-elkarteen kopurua handitzea. 2.1.2 Programazioetan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera bideratutako helburuak dituzten gizarte-erakundeen kopurua handitzea. 2.1.3 Munduan emakumeen eta gizonen eskubide-berdintasuna eta, bereziki, emakume errefuxiatuen eta migratuen eskubideak sustatzen dituzten emakume-elkarteen eta gizarte-erakundeen kopurua handitzea.
2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA.	2.2. Emakumeen parte-hartze soziala sustatzea eremu eta espazio guztietan	2.2.3 Gizarte-, sindikatu-, enpresa- eta politika-erakundeetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea. 2.2.4 Gizarte- eta politika-arloan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula eta/edo gune berrien bidez.
	2.3. Emakumeen presentzia eta eragina handitzea erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan	2.3.1 Sektore publikoko postuetan emakumeen presentzia handitzea, bereziki genero-arrakala handiena dagoen eremuetan. 2.3.2 Sektore publikoko eta pribatuko erakundeetako erabaki-eremuetan eta zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea 2.3.3 Elkarte-mugimenduko, irabazi-asmorik gabeko erakundeetako (kultura, kirola eta aisialdia bame), erakunde politikoetako, sindikatuetako eta enpresa-erakundeetako erabaki postuetan eta guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea. 2.3.4 Emakumeek erabaki-postuetan duten eragina areagotzeko laguntza- eta trebakuntza-programak areagotzea

2. ARDATZA: Ekonomiak eta gizarte-antolaketa eraldatzeko programak eta helburuak, eskubideak bermatzeko ³		
3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA.	3.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna gizarte-balio gisa aitortzen laguntzea.	3.1.1 Berdintasuna gizarte-aurrerapenarekin lotzen duten pertsonen kopurua handitzea. 3.1.2 Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna gizarte-arazo garrantzitsutzat jotzen duten pertsonen kopurua handitzea. 3.1.3 Emakumei eta gizonei bizitzako eremu guztietan rol eta estereotipo desberdinak esleitzen dizkieten haurren, gazteen eta helduen kopurua murriztea. 3.1.4 Berdintasuna gizarte-balio gisa sustatzeko konpromisoa duten komunikabideen kopurua handitzea. 3.1.5 Gizarte-komunikabideetan neskatoen, mutikoen, gazteen eta helduen presentzia orekatua eta aniztasuneko eta estereotipo sexistanik gabeko irudia sustatzen duten programen eta edukien kopurua handitzea gizarte-bizitzaren eremu guztietan.
	3.2. Zainketa bizitzaren iraunkortasunerako ezinbesteko baldintza dela gizartearen onartzea.	3.2.1 Zaintza-lanak emakumeen inguruan desnaturalizatzen dituzten eta horiek gizarte-premia bat direla eta horiek hornitzeko gizonak, erakundeak, enpresak eta erakunde pribatuak eta gizarte zibila inplikatu behar direla ikasten duten gazteen eta helduen kopurua handitzea. 3.2.2 Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren eta zaintza-lanekin konprometitu dauden jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea. 3.2.3 Egungo zaintza-arretaren eredia gero eta handiagoa eta askotarikoa den zaintza-eskariarekin egokitzea aztertzea, erantzuna hobetzeko, erantzukidetasunaren eta zaintza-lanen aitorten sozial eta ekonomikoaren ikuspegitik. 3.2.4 Eztabaida publikoa sustatzea, bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen-eredu bati nola lagundu aztertzeke, egungo eredu ekonomikotik abiatuta

²Erakunde guztien eskumeneoak diren helburuak nabarmentzen dira, bai eta Lan eta Enplegu Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.

³Kolore honetan nabarmentzen dira erakunde guztien eskumeneoak diren helburuak eta Lan eta Enplegu Sailaren eskumen espezifikoak direnak.



	3.4. Antolaketa eta enpresaren kultura berdintasunarekin lerrotzea.	<p>3.4.1 Kultura eta enpresa-praktika berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-eragile, enpresa eta erakunde pribatuak kopurua handitzea.</p> <p>3.4.2 Genero-ikuspegia duten kudeaketa aurreratu sistemak txertatzen dituzten erakunde publikoak, gizarte-eragileak, enpresak eta erakunde pribatuak kopurua handitzea.</p> <p>3.4.3 Berdintasunerako eraldaketarako hausnarketa- eta eragin-guneetan parte hartzen duten erakundeak eta enpresak kopurua handitzea.</p>
<p>4. PROGRAMA: AUTONOMIA EKONOMIKOA EMAKUMEENTZAT.</p>	4.1. Enplegu gehiago eta hobeak sortzea.	<p>4.1.1 Emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa handitzea, kalitatezko lanpostuetan parte hartuz.</p> <p>4.1.2 Enplegua eta autoenplegua sustatzen duten emakumeen kopurua handitzea.</p> <p>4.1.3 Emakumeek estatutako enpresa-proiektu finkatu, lehiakor eta/edo nazioartekoak kopurua handitzea.</p> <p>4.1.5 Prekarietate-baldintza berezietan egiten diren lan feminizatuen lan-baldintzak eta gizarte-estaldura hobetzea; besteak beste, zaintza-lan ordainduetan eta lehen sektorean egiten direnetan.</p> <p>4.1.6 Genero-aldea murriztea emakumeek eta gizonen lan ordainduan eta prestakuntzan ematen duten denboran, lan-karga globala handitu gabe.</p> <p>4.1.7 Emakumeen eta gizonen batez besteko urteko soldata gordinen arteko aldea murriztea, batez ere alde handiena duten sektoreetan.</p> <p>4.1.8 Emakumeen eta gizonen pentsioen arteko arrakala ekonomikoa murriztea</p> <p>4.1.9 Lantokietan lanpostuz igotzen diren emakumeen ehunekoa handitzea, jakinarazitako prozesu gardenen bidez.</p>
	4.2. Pobreziaren feminizazioa murriztea	<p>4.2.2 Ezkutuko ekonomian lan egiten duten emakumeen kopurua murriztea.</p> <p>4.2.3 Erakundeek eskaintako erantzunak eta baliabideak (zerbitzu sozialak, gizarteratzeak, ekonomikoak, osasuna, hezkuntza, kultura, enplegua, justizia, segurtasuna eta etxebizitza) pobrezia edo bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden emakumeen beharretara hobeto egokitzea.</p>
<p>5. PROGRAMA: ZAINKETA EKONOMIA FEMINISTA</p>	5.1. Zainketa bizitzaren iraunkortasunerako ezinbesteko baldintza dela gizartean onartzea.	<p>5.1.1 Zaintza-lanak emakumeen inguruan desnaturalizatzen dituzten eta horiek gizarte-premia bat direla eta horiek hornitzeko gizonak, erakundeak, enpresak eta erakunde pribatuak eta gizarte zibila inplikatu behar direla ikasten duten gazteen eta helduen kopurua handitzea.</p> <p>5.1.2 Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren eta zaintza-lanekin konprometitu dauden jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea.</p> <p>5.1.3 Zaintza-lanen egungo arreta-eredua gero eta handiagoa eta askotarikoa den zaintza-eskariarekin egokitzea aztertzea, erantzuna hobetzeko, erantzukidetasunaren eta zaintza-lanen aitortze sozial eta ekonomikoaren ikuspegitik.</p> <p>5.1.4 Eztabaida publikoa sustatzea, bizitzaren jasangarritasunaren oinarritutako garapen-eredu bati nola lagundu aztertzea, egungo eredu ekonomikotik abiatuta</p>
	5.3. Zainketa antolaketa sozial berri bat babestea, zaintza horiek birbanatzeko	<p>5.3.1 Genero-aldea murriztea emakumeek eta gizonen ordaindu gabeko zaintza-lanetan ematen duten denboran.</p> <p>5.3.2 Haur eta gazteek zainketa-lanak egiten ematen duten denbora handitzea, mutilen arreta berezia eskainiz.</p> <p>5.3.3 Kontziliario erantzukiderako neurriak hartzeko gizonen kopurua handitzea.</p> <p>5.3.4 Gizonen eta emakumeen kontziliario-neurriak hartzeko hautematen duten zailtasun-maila murriztea.</p> <p>5.3.5 Guraso-baimenak parekatzea sustatzea, berdinean eta besterenezin izan daitezkeen</p> <p>5.3.6 Sektore pribatuko enpresek zaintza-lanekiko duten erantzukidetasuna handitzea.</p> <p>5.3.7 Administrazioek eta enpresa publikoek hartutako kontziliario erantzukidexa neurriak kopurua handitzea.</p> <p>5.3.9 Herritarrentzako zerbitzu publikoaren ordutegi-malgutasuna handitzea.</p>
<p>3. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzetarako programak eta helburuak⁴</p>		
<p>6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.</p>	6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.	<p>6.1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonen kopurua handitzea, batez ere beren kargura adingabeak dituzten pertsonen artean edo, beren erantzukizunengatik, adingabeentzako erreferentzia-eredu diren pertsonen artean.</p> <p>6.1.2 Pertsonak beren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak ezabatzea, bai eta pertsonak sexu-objektu huts gisa aurkezten dituztenak eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen dutenak ere, hedabideetan agertzearen ondorioz beriz biktimizatzea saihestuz.</p> <p>6.1.3 Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendua hobetzea, genero-desberdintasuna oinarritutako elementu gisa ikus dadin, eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa.</p>

⁴Kolore honetan nabarmentzen dira erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak eta Lan eta Enplegu Sailaren eskumen espezifikoak direnak.



	<p>6.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.</p> <p>6.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa bultzatzea eta sendotzea.</p>	<p>6.1.4 Desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko harremana ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzea, bereziki mutilena eta gizonena, baita prebenitzen saiatzen direnena eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen dutenena ere.</p> <p>6.1.5 Emakumeen aurkako indarkeria motei eta horiek desberdintasunarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, bereziki indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa.</p> <p>6.2.1 Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen aurkako indarkeria-kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta arlo horretan esku-hartze publikoa hobetzeko.</p> <p>6.2.2 Emakumeen aurkako indarkeriari eta haren adierazpenei buruzko ezagutza hobetzea.</p> <p>6.2.4 Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzean dituen inplikazioei buruzko hausnarketa sustatzea, indarkeria mota berrietan arreta berezia jarritz.</p> <p>6.2.5 Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza iraunkorra, nahikoa eta eremu eta erantzukizun-maila guztietara egokitua izango dela bermatzea.</p> <p>6.2.6 Beren esku-hartzean emakumeen ahalduzko pertsonalaren ikuspegia eta kaltearen erreparazioaren kontzeptua txertatzeko behar adinako gaikuntza duten profesionalen kopurua handitzea.</p> <p>6.3.4 Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prebentzio- eta arreta-programen eta neurrien eraginokortasuna hobetzea.</p>
<p>7. PROGRAMA: KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA.</p>	<p>7.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzea.</p> <p>7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta osoa bermatzea, ahalduzkoaren ikuspegitik, eta esku-hartzea nazioarteko estandarrekin lerrokatzea.</p> <p>7.3. Kaltearen erreparazio indibidual eta kolektiborako eskubidea bermatzea</p>	<p>7.1.1 Emakumeen aurkako indarkeria goiz detektatzeko ezarritako protokoloen arabera eta modu proaktiboan jarduten duten profesionalak gehitzea (hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman).</p> <p>7.1.2 Esku hartzeko eremu guztietan indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzea, indarkeria psikologikoan arreta berezia jarritz.</p> <p>7.1.3 Informazio egokia jasotzen duten emakume biktimeen kopurua handitzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren beren itxaropenei egokitutako erabakiak har ditzaten.</p> <p>7.1.4 Edozein motatako indarkeria jasan duten eta zerbitzuak eta baliabideak goiz erabiltzen dituzten emakumeen kopurua handitzea, zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko zailtasun handienak dituztenei arreta berezia jarritz.</p> <p>7.2.1 Lurraldean eta udalerrien artean arretaren kalitatean eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabideen eskuragarritasunean eta zuzkiduran dauden aldeak murriztea, landa-eremuko udalerriari arreta berezia eskainiz.</p> <p>7.2.2 Gizakien salerosketaren biktimea diren eta EAEn dauden baliabide eta zerbitzu espezifikoei erantzuten zaien emakumeen eta neskatuen kopurua handitzea.</p> <p>7.2.3 Beren lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta arreta-protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua handitzea.</p> <p>7.2.4 Arriskuan dauden taldeetan egoteagatik eratorritako egoerei erantzuteko behar diren baliabideak dituzten arreta-zerbitzuen kopurua handitzea, ikuspegi interseksionaletik.</p> <p>7.2.5 Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren seme-alaben berariazko premiei erantzuteko baliabideak dituzten arreta-zerbitzuen kopurua handitzea, ikuspegi interseksionaletik.</p> <p>7.2.10 Sexu-indarkeriako kasuen aurrean arreta-sistemaren erantzuna hobetzea.</p> <p>7.3.1 Baliabide publikoak areagotzea, bizirik atera diren emakumeak eta haien seme-alabak erabat oneratzeko laguntzeko, eta, horretarako, haien aniztasuna eta indarkeriak bakoitzean dituen inaktuak baieztatzea eta aitortzea.</p> <p>7.3.2 Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duten ekintza publikoen kopurua handitzea, baita bizirik atera direnekiko errespetua adierazten dutenena ere, emakumei ahotza emanez egia zabalten dela ziurtatzeko, eta bizitakoaren aitortze soziala eginez, berriz biktimizatzea saihestuz.</p> <p>7.3.3 Kaltea errepikatuko ez dela bermatzeko formulak aztertzea, arreta kausatzailearengan jarritz, emakume guztiei indarkeriarik gabeko bizitza bermatzeko.</p> <p>7.3.4 Indarkeriak biktimgan dituen eragin guztiak kontuan hartuta, neurriko kalte-ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzea.</p>
<p>8. PROGRAMA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA.</p>	<p>8.1. EAEn emakumeen aurkako indarkeriari heltzen dieten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea.</p>	<p>8.1.1 EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dagoen araudia errealitate horri modu integralean heltzeko dakartzan aurrerapenei eta erronka berriekin lerrokatzea.</p> <p>8.1.2 Indarrean dauden erakunde arteko koordinazio-akordioak emakumeen aurkako indarkeriaren arloko araudi-, teknika- eta gizarte-aldaketetara egokitzea.</p> <p>8.1.3 Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetarako prebentzio- eta arreta-protokoloen estaldura duten eta egoera desberdinetara egokituta dauden biztanleen kopurua handitzea.</p>



3

SAILAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

3.1. DIAGNOSTIKO-DATU GARRANTZITSUAK

3.1.1. GOBERNU ONA

Lan eta Enplegu Sailaren Gobernu Onerako egungo konpromiso-mailaren diagnostikoa egiteko orduan, honako gai hauek aztertu dira programa bakoitzerako (VII. Planean eta haren adierazleetan gobernu onerako aurreikusitako neurriekin korrelatiboak):

I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA

Lan eta Enplegu Sailaren egungo konpromiso politikoaren diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:



Alderdi garrantzitsuak

- ▶ Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuari dagokionez, nabarmendu behar da 2021ean Lan eta Enplegu Sailak handitu egin duela berdintasun-politiketan egindako gastua aurreko urteekin alderatuta. Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala saihesteko, arintzeko eta haren aurka borrokatzeko ahaleginek sailaren berdintasun-arloko aurrekontuaren zati handi bat biltzen dute, eta milioi bat euro inguruko gastua izanik (sailari atxikitako erakunde autonomoek, Lanbidek eta Osalanez gauzatutako ekintzak kontuan hartu gabe). Jarduera horiek Soldata Arrakalaren Aurkako Ekintza Plan Eragilean (2021-2025) jasota daude, Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiaren esparruan.
- ▶ Soldata-arrakalaren aurka borrokatzera bideratutako baliabide ekonomikoez gain, berdintasunaren arloan gastu handia dakarten beste jarduera batzuk ere badaude, hala nola: Zainlab proiektua (zainketen arloko prestakuntza-programa, zainketen eremuan gizarte-ekonomiako enpresen aukerak garatzeko eredia eta Silver Economy); emakumeen ekintzailtza sustatzea eta enpresa eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua sartzeari helburu duten erakundeei zuzendutako dirulaguntzen deialdia; ekintza positiboko neurriak aplikatzea gizarte-ekonomiako enpresentzako laguntza ekonomikoetan.
- ▶ Nolanahi ere, egiaztatu da, nahiz eta berdintasun-arloko jarduerak garatzeko aurrekontu-esleipen zehatzak egon, lehen zehaztu den bezala, ezinezkoa dela aurrekontu espezifiko orokor bat identifikatzea. Nolanahi ere, aurrekontu hori aurrekontu osoaren % 1 baino gutxiago da; beraz, legegintzaldi honi begira, berdintasunaren arloko aurrekontua identifikatzen aurrera egitea proposatzen da, eta pixkanaka Sailaren aurrekontu osoaren % 1era hurbiltzea.
- ▶ Era berean, konpromiso politikoa Lan eta Enplegu Sailaren Zuzendaritza Kontseiluaren osaeran ere islatzen da. Hala ezartzen da egiturari, eta bederatzi pertsona osatzen dute; horietako zortzi, emakumeak: Lehendakarioordea, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordea, Kabineteko Zuzendaria, Komunikazioko Zuzendaria, Zerbitzu Zuzendaria, Osalanezko Zuzendaria, Lanbideko Zuzendaria eta lan-arloko Aholkularia.



- ▶ Berdintasunaren arloko plangintzari dagokionez, Lan eta Justizia Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean (2018-2021) jasotako jarduerak ezarri dira Lanaren eremuan, eta Enpleguaren eremuan, berriz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean (2018-2021) jasotako ekintzak jarri dira abian. Aurreikusitako ekintza guztien % 90 baino gehiago gauzatu dira, eta % 100 partzialki.
- ▶ Lan eta Enplegu Sailari atxikitako erakunde autonomoak, Osalan (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) eta Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua) berdintasunaren arloko plangintza propioa egiten ari dira.
